Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2297

89/2009 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Areatzako Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatzeko eta hura zaintzeko babes arauak ezartzeko den Dekretua hirugarrenez aldatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen, Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2008ko otsailaren 11ko Ebazpenaren bidez (martxoaren 11ko EHAA, 50. zk.), Areatzako Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenaz kalifikatzen duen maiatzaren 28ko 124/1996 Dekretua aldatzeko espedienteari hasiera eman zitzaion, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko epea ireki zen.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2008ko apirilaren 3ko Ebazpenaren bidez (maiatzaren 14ko EHAA, 90. zk.), Areatzako Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, sailkatutako kultura ondasun deklaratzen duen maiatzaren 28ko 124/1996 Dekretua aldatzeko espedientean alegazioak aurkezteko epea luzatzeko Areatzako Udalak egindako eskaera onartu zen.

Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea egin ondoren, Inverlan XXI SA merkataritza-sozietateak eta Areatzako Udalak alegazioidazki bana aurkeztu dute.

Behin aurkeztutako alegazioak aztertu eta gero eta Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordearen erabakiarekin bat, erantzuna eman zaie alegazioei, eta ezetsi, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak egindako txosten teknikoen bidez (txostenok espedientean daude).

Ondorioz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.1 eta 12. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostena aztertu ondoren, eta Kultura sailburuaren proposamenez eta Gobernu Kontseiluak 2009ko apirilaren 21eko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2297

DECRETO 89/2009, de 21 de abril, de tercera modificación del Decreto por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Areatza (Bizkaia), y se fija su régimen de protección.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo desarrollo se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, de 11 de febrero de 2008, publicada en el BOPV n.º 50, de 11 de marzo, se incoó y se acordó someter a los trámites de información pública y audiencia a los interesados el expediente para la modificación del Decreto 124/1996, de 28 de mayo, por el que se calificó como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Areatza (Bizkaia), y se fijó su régimen de protección.

Por medio de Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, de 3 de abril de 2008, publicada en el BOPV n.º 90, de 14 de mayo, se aceptó la solicitud del Ayuntamiento de Areatza para la ampliación del plazo para efectuar alegaciones en el expediente de modificación del Decreto 124/1996, de 28 de mayo, por el que se calificó como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Areatza (Bizkaia), y se fijó su régimen de protección.

Abierto el trámite de información pública y audiencia a los interesados, la mercantil Inverlan XXI, S.A., y el Ayuntamiento de Areatza han presentado sendos escritos de alegaciones.

Una vez analizadas las alegaciones presentadas, y de conformidad al acuerdo adoptado por el Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi, se ha procedido a la contestación de aquéllas mediante los oportunos informes técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco, obrantes en el expediente, por los que se desestiman dichas alegaciones.

En su virtud, de conformidad con lo establecido en los artículos 11.1 y 12 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, visto el informe favorable de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural, a propuesta de la Consejera de Cultura y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de abril de 2009,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Areatzako (Bizkaia) Hirigune Historikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, sailkatutako kultura ondasun deklaratzen duen maiatzaren 28ko 124/1996 Dekretuaren aldaketa onartzea. Aldaketa I. eranskinean adierazitako mugaketa berriari lotuko zaio, bai eta II. eranskineko Guardamino jauregiari atxikitako gunearen planoari ere, eta III. eranskinak jasotzen dituen aldaketak egingo dira hasierako Babes-Araubidean.

2. artikulua.– Lehengo babes-araubideari eustea, aldaketak eraginik sortzen ez duen gainerako guztian.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Kultura Sailak dekretu honen berri emango du Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta, horrekin batera, honako erakunde hauei jakinarazi: Areatzako Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari eta Garraioak eta Hirigintza Sailari, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari.

Bigarrena.– Kultura Sailak eskaera egingo dio Areatzako Udalari udal hirigintza-araudia egokitu dezan monumenturen babes-araudiak ezartzen dituen betebeharretara, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2 artikuluak hala xedatzen duelako.

Hirugarrena.– Argitara dadila dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, jende guztiak horren berri izan dezan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Monumentu-multzoaren mugaketak hartzen duen eremuan egin beharreko esku-hartzeek aldez aurretik Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko dute, eta baimen horren ondotik eskuratu behar da udal lizentzia, halaxe xedatzen du-eta Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29.1 artikuluak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, aurretik bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernu Kontseiluari hilabeteko epean, edo bestela zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

DISPONGO:

Artículo 1.– Modificar el Decreto 124/1996, de 28 de mayo, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Areatza (Bizkaia), y se fija su régimen de protección, conforme a la nueva delimitación indicada en el anexo I, al plano de área vinculada al Palacio Guardamino del anexo II y estableciendo las modificaciones al Régimen de Protección inicial que se incorporan en el anexo III.

Artículo 2.– Mantener su régimen de protección en aquellos elementos que no resulten afectados por la modificación.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– El Departamento de Cultura comunicará el presente Decreto al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, y lo notificará a los interesados, al Ayuntamiento de Areatza, a los Departamentos de Cultura y de Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Segunda.– El Departamento de Cultura instará al Ayuntamiento de Areatza para que proceda a la adecuación de la normativa urbanística municipal a las prescripciones del régimen de protección que se determina para dicho Conjunto Monumental, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 12.2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Tercera.– Publíquese el presente Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia, para su general conocimiento.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las intervenciones que deban realizarse sobre el área afectada por la delimitación del Conjunto Monumental quedarán sujetas a la autorización de los órganos competentes de la Diputación Foral, la cual habrá de ser previa a la concesión de la licencia municipal, tal y como se establece en el artículo 29.1 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra el presente Decreto, que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

Bigarrena.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

Segunda.– El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

APIRILAREN 21EKO 89/2009 DEKRETUAREN I. ERANSKINA
ANEXO I AL DECRETO 89/2009, DE 21 DE ABRIL

MUGAKETAREN ALDAKETA/ *MODIFICACIÓN DE LA DELIMITACIÓN*

24/1996 Dekretuaren II. eranskina aldatu da: horren ordez ondoko plano hau jarri da.
Se modifica el anexo II del Decreto 124/1996, sustituyéndolo por el plano que se adjunta.



APIRILAREN 21EKO 89/2009 DEKRETUAREN II. ERANSKINA
ANEXO II AL DECRETO 89/2009, DE 21 DE ABRIL

GUARDAMINO JAUREGIARI ATXIKITAKO GUNEAREN PLANOA
PLANO DE ÁREA VINCULADA AL PALACIO GUARDAMINO



APIRILAREN 21EKO 89/2009 DEKRETUAREN
III. ERANSKINA

BABES ARAUDIAN EGINDAKO
ALDAKETAK

15. artikuluari 4. idatz-zati hau erantsi zaio:

15.4.– Guardamino jauregian edo Errukiñe 8 zenbakian, eraikinaren bolumetriari eutsiko zaio eta ez da gehikuntzarik onartuko, ez altueran ez azaleran. Errukiñe kalera eta Askatasuna kalera ematen duten fatxadetan eta beren osagaietan zaharberritze lanak egingo dira. Gainera, mendebaldeko etxe-egutera ere zaharberrituko da, kanpotik eta barnetik. Higiezinaren barruan banaketa eta barne-antolaketa nahierara aldatzea onartuko da, bai eta hondatuta dauden egiturazko elementuen ordez beste batzuk jartzea, betiere materiala errespetatuz eta egitura-sistemari eutsiz.

Errukiñe kalean, Guardamino jauregiaren iparraldean eta hegoaldean, tarteko eraikinak altxatzea onartuko da, baldin eta gehieneko sakonera bat badator etxe-eguteraren alboko hasierarekin. Egin daitezkeen tarteko eraikin horien altuerak gehienez ere metro bat gaindituko du oraingo eraikinarena. Askatasuna kalera jotzen duen orube-zatiak (II. eranskinean dago zehaztuta) eraikinik gabeko lorategia mantenduko du, horrela mendebaldeko fatxada balioetsi ahal izateko eta oraingo itxiturako burdin hesia multzoan integratzeko.

Babes Araudiaren 2. eta 3. zerrenden idazkera berria:

2. zerrenda:

– Udaletxea. Gudarien Plaza 7.

– Errukiñe kalea 1 eta 3.

– Askatasun kalea 16.

– Gudarien plazako iturria.

3. zerrenda:

– Gudarien Plaza 1.

– Errukiñe kalea 4, 5, 6 eta 8 (Guardamino jauregia).

– Errukiñe kalea 2, fatxada nagusia izan ezik.

– Beheko kalea 4, 7, 20 eta 24.

– Goiko kalea 4, 6, 8, 10, 22 eta 24.

– Aragoeta kalea 1.

– Kristo kalea 1.

– Askatasun kalea 26 eta 28.

– Udal hiltegia.

– Beheko kalea 14ko behea.

– Beheko kalea 1eko behea eta lehenengo solairua.

ANEXO III
AL DECRETO 89/2009, DE 21 DE ABRIL

MODIFICACIONES AL RÉGIMEN
DE PROTECCIÓN

Se añade al artículo 15 el siguiente apartado 4:

15.4.– En el Palacio Guardamino o Errukiñe 8 se mantendrá la volumetría y alineaciones del edificio, no posibilitándose aumentos de altura ni superficie. Las intervenciones en las fachadas a la calle Errukiñe y a la calle Askatasuna y sus elementos constitutivos serán objeto de restauración. Asimismo se restaurará la solana oeste tanto externa como internamente. En el interior del inmueble se posibilita la libre modificación de la distribución y organización interna y la sustitución de los elementos estructurales en mal estado manteniendo el material y conservando en todo caso su sistema estructural.

Se posibilita la construcción de edificios medianeros al norte y al sur del Palacio Guardamino en la calle Errukiñe, con un fondo máximo coincidente con el inicio lateral de la solana. Los posibles edificios medianeros podrán superar en un metro la altura del edificio actual. La parte del solar hacia la calle Askatasuna, definida en el plano anexo II, mantendrá la superficie ajardinada libre de edificación que permita la puesta en valor de la fachada oeste e integre la verja de cierre actual en el conjunto.

Nueva redacción de los Listados 2 y 3:

Listado 2:

– Ayuntamiento Gudarien Plaza n.º 7.

– Errukiñe kalea n.º 1 y 3.

– Askatasun kalea n.º 16.

– Fuente en Gudarien Plaza.

Listado 3:

– Gudarien Plaza n.º 1.

– Errukiñe kalea n.º 4, 5, 6 y 8 (Palacio Guardamino).

– Errukiñe kalea n º 2, a excepción de su fachada principal.

– Beheko kalea n.º 4, 7, 20 y 24.

– Goiko kalea n.º 4, 6, 8, 10, 22 y 24.

– Aragoeta kalea n.º 1.

– Kristo kalea n.º 1.

– Askatasun kalea n.º 26 y 28.

– Matadero Municipal.

– Bajo de Beheko kalea n.º 14.

– Bajo y planta primera de Beheko kalea n.º 1.